

## ASHIQUE-ren HISTORIA

### 0. Edukiak

Haurrak  
Globalizazioa  
Eskubide Sozialak

### 1. -Definizioa

Haurren esplotazioa ezagutu eta gaur egun egoera hau haur eta gaztetxo askok pairatzen duten egoera dela ikustarazi.

### 2. -Helburuak

- Haur esplotazioaren errealitatearen inguruaren ezagutza handitu.
- Arazoaren konplexutasunaren inguruan pentsamendu kritikoa garatu
- Justizia eta irtenbideak bilatzeko ardurarako balioak sustatu

### 3. -Partaideak

5 pertsonatik gora  
14 urtetik gora

### 4. - Materiala

Boligrafoak eta errotulagailuak  
Kartulina eta gehigarri

### 5. - Hasierako aipamena

Talde handia

### 6. - Garapena

Ashique, Pakistango haur langile baten inguruan kokatzen dela gaurko dinamika aipatzen da. Bere egoera aldatzea da helburua.

“Beroketa” moduan, “ipuin kontalari” gisa, denon artean, Ashique-ren egun bat imajinatu eta asmatuko dugu. Borobilean jarririk, partaide bakoitzak historiari esaldi bat gehitu beharko dio.

Gehienez 5-eko taldeetan banatuko dira partaideak. Ashiqueren bizitzari buruzko kopia bat emango zaie. Bost minutu emango zaizkie irakurtzeko eta komentarioak elkarbanatzeko.

Hau egin ostean, irtenbiderako ideien kopia bat talde bakoitzari emango zaio. Ideia-jasa bat egin beharko dute Ashique eta beste haur langileek aurre egiten diete arazoei irtenbideak aurkitzeko.

Gero bateratze-lan bat egingo dugu.

### 7. - Ebaluaketa

Eztabaidaren intentsitatea partaideen ezagutza orokorraren arabera izango da.

Ekintza egin baino lehen, Haurren ustiapenari buruz, zenbat aurre- informazio zenuten? Badago haur-lana zure herrialdean edo hirian? Zer motatako lana egiten dute umeei eta zergatik egiten dute lana? Lan egin beharko lukete

umeek? Zaila da pentsatzea nola konpon dezakegun haurren ustiapena? Arazo hau, denon artean, konpon dezakegu?

### **8. – Iturria**

COMPASS, Gazteekin Giza Eskubideak lantzeko eskuliburua Europako batzordeko argitalpenak.

## GEHIGARRIA 1

### Ashique bizitzaren egoerak



#### Informazio pertsonala

*Izena:* Ashique Hashmir

*Adina:* 11 urte

*Nazionalitatea:* Pakistandarra

*Familia:* Gurasoak, 2 aitite-amamak, arreba 1 eta 3 anai.

*Familiako diru-sarrera:* 70 euro/ hilabetero

#### Lanbide "informazioa"

*"Lanbidea":* Adreilu- fabrika batean langilea.

*Lan-ordutegia:* 12 eta 16 eguneko orduak, 6 egun astero.

*Lana- ekoizpena:* Gutxi gora beherako 600 adreilu.

*Soldata:* 1,30 euro bider 1000 adreilu

5 urte eduki duenetik *lan egiten du.*

#### Informazio gehigarria

Bere familiak, 2 urteren artean, 600 rupiako mailegu bat dauka (110 euro)

Orain, interesak gehitzen, 280 euro zor diote.

Bere aitak eskolara 3 hilabeten artean bidali zuen baina fabrikako ugazabak atera zuen eta lan egitera ipini zuen berriro. Bere aita zigortu zuen horrexegatik.

Familiako diru-sarrerak oso baxuak dira eta horretarako ezin ditu ezta semeak eskolara bidali ezta ondo jan ezta medikurrengana joan.

#### Egoera erreala

OIT-ko material eta Free the Children- tik sartuta informazioa.

### Konpontzeko ideak

Zer egin daiteke Ashiqueraren egoerarekin eta ume-langileekin?

Biharko?	Hurrengo hilabeterako?	Etorkizunerako?